

**Lankidetza hitzarmena berritu dute****EROSKIK ETA ONCE EUSKADIK IKUSMEN- DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK GIZARTARATZEKO KONPROMOSIOA BERRETSI DUTE**

- **Bi erakundeek sentsibilizazio- esperientzia pilotu bat garatu dute dendetan, arreta inklusiboago baten alorrean aurrera egiteko**

**Bilbo, 2025ko ekainaren 10a.-** Euskadiko [ONCE](#)k [EROSKI](#)k lankidetza-hitzarmena berritu dute aurten ere, itsuen edo ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta autonomia pertsonala sustatzen jarraitzeko. Akordioa Usue Vallejo Delcan ONCEren Euskadiko lurralde ordezkariak eta Alejandro Martinez Berriochoa EROSKIren Osasun eta Jasangarritasun zuzendariak sinatu dute.

Hitzarmenak kultura-, aisialdi- eta prestakuntza-jarduerak egitea aurreikusten du, ONCEko afiliatuei zuzenduta, gizartean erabat integratzen laguntzeko. EROSKIk, gainera, ekarpen ekonomikoa egin du ekimen horiek babesteko, eta aniztasunarekin, inklusioarekin eta aukera-berdintasunarekin duen konpromisoa berretsi du.

"EROSKIrekiko lankidetza funtsezko zutabea da oraindik gizarte eskuragarriago eta bidezkoago baterantz aurrera egiteko. Etengabeko inplikazioari esker, aukera gehiago ditugu ikusmen-desgaitasuna duten pertsonak aktiboki eta baldintza berdinetan parte har dezaten bizitzako esparru guztietan", nabarmendu du Usue Vallejok.

Bestalde, Alejandro Martinez Berriochoak honako hau azpimarratu du: "Hasieratik, EROSKI pertsonetikiko konpromiso integral gisa ulertu dugu jasangarritasuna. Hitzarmen honek gehien behar dutenei laguntzeko borondatea indartzen du, hurbileko gizarte-ekintza praktikotik eta eraldatzeko bokazioarekin".

**Dendako sentsibilizazio-esperientzia pilotu bat**

Konpromiso horren barruan, bi erakundeek sentsibilizazio-esperientzia pilotu bat jarri dute abian EROSKI dendetan, Bermeon, Durangon, Zornotzan, Lekeition, Iurretan, Elorrion, Markinan, Gernikan eta Ogenan. Ekimen hau maiatzetan egin zen ONCEren kontzientziazio-jardunaldien barruan kokaturik, eta denda-taldeak prestatzea izan du helburu, ikusmen murriztua edo guztizitsuak diren kontsumitzaileei arreta inklusiboagoa eskaintzeko.

---

**EROSKI**

Comunicación Corporativa

Tel.: 944 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)**EROSKI – OFICINA DE PRENSA****CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL

Tel.: 944 158 642

**Sala de prensa online**

EDURNE IZQUIERDO

Jardunaldiak alde teorikoa eta praktikoa uztartu zituen. Teorian, taldeek ikusmen-urritasun motei buruzko prestakuntza jaso zuten, nola identifikatu eta arreta egokia emateko jardunbide egokiak, estereotipo komunak desmuntatuz eta egunerokotasunerako oso baliagarriak diren gakoak eskainiz. Alde praktikoan, langileek lehen pertsonen bizi izan zuten ikusmen-urritasunarekin erosteko esperientzia, ikusmen-galeraren maila desberdinak simulatzen dituzten betaurrekoak erabiliz.

"Benetan argigarria izan zen ulertzea, adibidez, pertsona batzuek zergatik egiten dituzten argazkiak prezioetan edo etiketetan, askok irudiak zabaltzen edo ozen irakurtzen dituzten aplikazioak nola erabiltzen dituzten. Desberdintasuna markatu dezaketen oso keinu sinpleak ere ikasi genituen, hala nola informazioa letra handiz eta kontraste onarekin idaztea", adierazi dute parte hartu duten taldeek.

Saioa amaitzeko, eskola praktiko bat eman zen denda-ingurunean pertsona itsu bati behar bezala laguntzeko moduari buruz, arreta pertsonari eskainita. Ekintza hori osatzeko, ikaskuntzak EROSKIren denda-ekipo guztietara transferituko dira, eta inkesten bidez ebaluatuko da, haien eragina neurtzeko eta izan dezaketen hedadura aztertzeko.

Bi erakundeek elkarrekin lan egiten jarraitzeko asmoa agertu dute, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta pertsona horiek gizartean erabat sar daitezen sustatzeko.

#### Informazioa:

|                                                                                                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>ONCE Euskadi</b><br>IÑIGO ARBIZA GALDÓS<br>Prentsa Bulegoa  Euskadiko lurralde Ordezkaritza<br><a href="mailto:iaga@once.es">iaga@once.es</a><br>Tel.: 620.102.012 | <b>EROSKI Komunikazio Korporatiboa</b><br>PATRICIA MARTÍN SANCHIDRIÁN<br>Tel: 946 211 214<br><a href="mailto:comunicacion@eroski.es">comunicacion@eroski.es</a><br><a href="#">Sala de prensa online</a><br>PRENTSA BULEGOA – CONSEJEROS DEL NORTE<br>JOANA G. LANDAZABAL / EDURNE IZQUIERDO<br>Tel: 944 158 642 |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

---

#### EROSKI

Comunicación Corporativa

Tel.: 944 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### EROSKI – OFICINA DE PRENSA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[Sala de prensa online](#)